



# **ITSASKI AZOKA 2009**

---

**Prentsa txostena**

[www.itsaskiazoka.net](http://www.itsaskiazoka.net)

2009/09/30



Zierbenako Udala itsaserri honetan urriaren 2,3 eta 4an izango dugun **Itsaski Azokaren IX.** edizioaren antolaketari azken ukituak ematen dabil. Azoka honen gai nagusia ITSASOA da, Zierbena udalerriko bizitzaren ardatzetako bat izan dena mendeetan zehar. Udalerrri honetako ostalaritzaren kalitate ezagunak berori egiten du hiru Azoka-egun hauen gako nagusi, itsaskia eginez motibagarri. Horren froga argia, bisitarien gozagarri izan daitezkeen 13 tona itsaski.

IX. edizio honek aurreko urteetan izandako bisita kopurua gainditzea espero du, Zierbenako Udalak nahi duten pertsona guztiak debaldeko lanzaderen bitartez hurbiltzearen aldeko apostua egin baitu. Aurreko ediziora arte, bazen El Calerotik azokagunera bisitariak hurbiltzen zituen lanzadera bat. Aurten, debaldeko autobus zerbitzua izango da nahi duen edonor hurbiltzeko Santurtziko tren eta metro geltokitik azoka-gunera. Dena den, Azokak duen hiru eguneko epean 150.000 bisitari baino gehiago izatea ez da erraza, ekitaldia egiten deneko Portu-gunearen ezaugarri fisikoengatik baino ez bada ere. Horregatik, oraintxe bertan, Udalak Azokaren antolatzaile gisa duen helburu nagusia ez da soilik bisitari guzti horiek itsaski hoberena prezio eskuragarrian eta kopuruz nahikoz aurkitu dezaten. Horrez gain, geure udalerrria eta gure Azoka bisitatu izana gogorapen atsegin bihurtuko duen ekitaldi aukera zabala eskaintzea da helburua.

Aurreko edizioan izandako bizipen pilotoaren ondoren, aurten Udalak 50 litroko 9 kupel jarri ditu, karpa guztien arteko olio bilketa zerbitzua eskaini asmoz.

Aurtengo berrikuntza nagusia **ARRANTZA TAILERRAK** dira. Horietan, gaien adituak direnek interesa duen edonori irakatsiko diote arrain freskoa bestearengandik bereizten.

Bestalde, eta aurreko edizioaren arrakasta ikusita, **TAILER GASTRONOMIKOEK** pisu garrantzitsua izango dute Azoka honetan. Horietan, Itsaskira datozen pertsonak itsaskiz osatutako errezeta hoberenen prestakuntzak dituen sekretuak ezagutu ahal izango dituzte.

Ekitaldi desiratuenen artean **ESKU PILOTA EKITALDI** oso interesgarria dago, Aldapako Kiroldegian izango dena.

Era berean, iaz lehen aldiz antolatutako eta Azokara etorriek oso ondo hartutako ekitaldiak mantentzen dira, besteak beste txalupa-txangoak, Azokara etorriko direnek, oraingoan gida batez lagunduak, zonaldeko leku ederrak itsasotik ikusteko aukera izan dezaten eta kukaina txapelketa.



## Zelan heldu

### Garraio publikoa

Zierbenako udalak debaldeko lanzadera jarri du Santurtziko Metro geltokitik, Tren geltokitik eta Lukas jatetxetik, Itsaski Azokara garraio publikoz joan nahi duen edonor eramango duena. Lanzaderaren ordutegiak ondoko hauek dira:

#### Urriak 2, ostirala:

- Santurtzitik Zierbenarako zerbitzua 17.30etatik 22.00etara. Santurtzitik abiatuko den azken zerbitzua 21.30eta izango da, eta Zierbenatik 22.00etan.

#### Urriak 3, larunbata:

- Santurtzitik Zierbenarako zerbitzua 10.30etatik 22.00etara. Santurtzitik abiatuko den azken zerbitzua 21.30eta izango da, eta Zierbenatik 22.00etan.

#### Urriak 4, igandea:

- Santurtzitik Zierbenarako zerbitzua 10.30etatik 15.00etara. Santurtzitik abiatuko den azken zerbitzua 14.00eta izango da, eta Zierbenatik 15.00etan.

Bizkaibusen linea 2:

- A3321 Portugalete-Muskiz**, Portugaleten, Santurtzin eta Muskizen geldituz. Orduroko irteerak. Geltokia Zierbenan (El Puerto auzoa)
- A3335 Sestao-Muskiz**, Sestaon, Portugaleten, Santurtzin, Urtuellan, Abanton eta Muskizen geldituz. Geltokia Zierbenan (Aldapa auzoa)



### Norberaren ibilgailuz

Bide zuzenena A-8 autobia da, eta Zierbena-Santurtzi irteera hartuz. Autobiatik irteteen, ekialderako errepidea hartu, Zierbenarantz.



Antolatzaileek behar bezala seinalatuko diren hiru parking prestatu dute:

- Zierbenako Portuan kokatutako bat.
- Zierbenako Harrobi zaharrean kokatutako beste bat.
- Zierbenako Aparkabisaren gunean kokatutako parking bat, bisitariak azoka-gunera hurbilduko dituen debaldeko autobus zerbitzua izango duena. Debaldeko autobus zerbitzua horrek ondoko ibilbide hau egingo du:
  - ◆ 1go geltokia: N - 639 errepidean (Santurtzi-Zierbena) El Calero gunearen parean (Las Rocas tabernaren aurrean)
  - ◆ 2. geltokia: Aparcabis Bulegoak
  - ◆ 3. geltokia: Azoka-gunea
  - ◆ Autobus hau ondoko ordutegiz ibiliko da: ostiralean 18:00etatik 22:00etara, larunbatean 11:00etatik 22:00etara eta igandean 11:00etatik 15:00etara.
- Gainera, bigarren urtez izango dugu gaitasun mugatuko pertsonentzako aparkalekua, azoka-gunearen ondoan kokatuko dena.

## Azokaren egitura

Bizkaiko udalerrri honetara hurbilduko diren bisitariak ekitaldi antolaketa zabala aurkituko dute. Ekitaldi hauek karpa, estand eta gune ezberdinen inguruan burutuko dira.

- DYaren postua, bisitarien ziurtasuna bermatu nahian
- Informazio eta Turismo Karpa, promozio gaiak izango dituen, esaterako Zierbenako DVDa, kamisetak, amantalak, sukalde trapeak, liburuak, esku-orriak,...Gainera, Turismo Bulegoa karpa honetan jarriko da nahi duten guztiei turismo arloko informazioa eskaintzeko asmoz.
- Umeen jarduera gunea
- Zierbenan bizi diren bolondresen ardurapeko udal karpa
- Herri elkarten karpak
  - ◆ Futbol Sala Elkarte: Zierbenako CDF Auzoak
  - ◆ 2000 Emakumeen elkarte
  - ◆ Zierbena Arraun Taldea (bere instalazioen barruan)
- Arrantza Tailerren gunea
- Gastronomía Tailerren Gunea
- Itsasmendikoiren estanda – Euskadi Erkidego Autonomoko Landa eta Kostaldean inguruko Formazio, Sustapen eta Garapenerako Orotariko Zentroa.
- Itsaskidun enpresen 16 stand. Euskadi, Cantabria eta Asturiaseko Kontserba-enpresak.
- Itsasoari lotutako merkataritza establezimenduen 4 stand. Arloak:



- ◆ Nautika
- ◆ Urpekaritza
- ◆ Arrantza materiala
- ◆ Itsasontziak

## Itsaski salmenta

Zalantzarik ez, ikusgarriena, kopuruetan behintzat, bisitariek Azokak iraungo duen hiru egunetan zehar gozatuko dituzten **13 tona itsaski baino gehiago** izango dira.

<b>Itsaskia</b>	<b>kiloak</b>
Zigala	600
Txangurrua	400
Buia	3.400
Nekora	2.600
Lanperna	600
T1 Olagarroa	1.700
Itsas-barraskiloa	1.300
Otarraixka	2.000
Kiskiloia	700
<b>Guztira</b>	<b>13.300</b>

### Itsaskia saltzeko karpak

Ondoko ordutegiekin:

- Ostiralean: 12.00etatik 15.00etara eta 17.00etatik 24.00etara
- Larunbatean: 11.00etatik 01.00etara
- Igandean: 11.00etatik 15.00etara



## Bestelako jarduerak

### Arrantza tailerrak

Azoka honetako berrikuntza handietako bat dira eta Itsasmendikoiren ardura izango dira.

Tailer hauetan parte hartzaile guztiek izango dute arrain freskoa bestelakoarengandik bereizten ikasteko aukera.

Tailerrak ondoko ordutegiz izango dira

- Ostiralean: 13:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara
- Larunbatean: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara
- Igandean: 12:00etatik 14:00etara

### Gastronomia tailerrak

Aurreko edizioan tailer hauek izan zuten arrakasta ikusita, aurten gastronomia tailerrek garrantzi handia izango dute Itsaski Azokan. Tailerretaz Muskizeko Ostalaritza Eskolako irakasleak arduratuko dira. Eskola hau Meatzaldeko Behargintzaren menpekkoa da, Zierbenako Udala kide duen erakundea.

Tailer bakoitzak 30 minutuko iraupena izango du. Berorien bitartez, parte hartzaileek itsaski plater gozoen sukaldatzeak dituen sekretuak ikasi ahal izango dituzte.

Tailerrak ondoko ordutegiz izango dira

- Larunbatean: 12.00etatik 15.00etara eta 17.00etatik 20.00etara
- Igandean: 12.00etatik 15.00etara

Ondoko errezeta hauek prestatuko dira:

- Otarrainxka amandatutako saltsa arrosa beloaz
- Tipulatutako txipiroi frijitua itsaski saltsaz
- Moluskuak lurrin pikanteetan, saltsa berde, lima arraspatua eta intxaur hautsarekin

### Txapelketak

- Heriotza gabeko arrantza txapelketa umeentzat. 3 kategoria: 9 urte baino gutxiagoak, 10 eta 12 urte artekoak eta 17 urtera artekoak
- Kukaina: Larunbatean 16.30etan



## **Umeentzako jarduerak**

Umeentzako gunea zabala prestatuko da. Umeentzako gunea larunbatean (egun osoz) eta igandean (goizez) izango da zabalik. Jarduerak:

- Globoflexia tailerra: Ganba bat egingo dute puzgarrien bitartez

### 2 eta 6 urte artekoak

- Itsas-paisaiadun koadroa
- Umeentzako ludoteka
- Aurpegiak margotzea

### 6 urtetik gorakoak

- Urriak 3, larunbateko tailerrak:
  - Itsaski-mozorroa.
  - Itsaski-karetak.
  - Itsasontzigintza.
- Urriak 4, igandeko tailerrak:
  - Itsaskien inguruko aterako mugikorra.
  - Itsaskien orri-markatzailea.
  - Maskota inspirazio hartuta kamisetak margotzea.

## **Musika ekitaldiak**

### Ekitaldiak

- Ostirala 20:00. Sunbilatik Kantuz Kantu (Euskal Kantak)
- Larunbata 20:30. Tolín mariachia

Ekitaldiak udal karparen barruan izango dira.

### Azoka-gunean zeharreko animazioa

- Fanfarreak
- Otxoteak



### **Txalupa txangoak**

Gidatutako txalupa txangoak egingo dira Zierbenako Portua itsasotik ikusteko. Ibilaldi hauek 1,5 euroko prezio sinbolikoa izango dute.

Ibilaldi hauen ordutegiak ondokoak izango dira:

- Larunbat goizez: 12.00 h, 13.00 h eta 14.00 h
- Larunbat arratsaldez: 17.00 h eta 18.00 h
- Igande goizez: 12.00 h, 13.00 h eta 14.00 h

### **"Zierbena" Argazki Txapelketa**

Itsaski Azokan **III. Udal Argazki Txapelketaren** hiru saridunak ezagutaraziko dira. Sariak 800, 400 eta 200 eurokoak dira, hurrenez hurren.

Txapelketa argazkizale guztiei irekia izan da, udalerrian bizi ala ez. Irudiak Zierbena udalerrian inguruak izan behar zuten, bere natura erakargarriaz zein historia edo arte arloko erakargarritasunaz eta bertako jendeaz. Aurkeztutako argazkiak Azokan izango dira ikusgai.

Txapelketa honek BBK eta Foto Esteban izan ditu babesle.

### **Esku pilota Jaialdia**

Ostiralean jokatuko da 22.00etan Aldapa kiroldegiko frontoian. 2 partida izango dira:

- 1go Partida, Lau t'erdikoa: APEZETXEA eta IBAI PÉREZ
- 2. Partida, Bikoteak: MARTINEZ DE IRUJO – GALARZA VI eta TITIN II - ZUBIETA



## Antolatzailea eta babesleak

### Antolatzailea

Zierbenako udala

### Babesleak

- Eusko Jaurlaritza: Ingurumen, Lurralde Antolaketa, Nekazaritza eta Arrantza Saila
- Eusko Jaurlaritza: Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila
- Bilbao Bizkaia Kutxa
- Petronor
- Aparkabisa

Gainera, ondoko enpresa hauek diruz lagundu dute: El Cargadero jatetxea, La Parrilla jatetxea, La Arena Apartamento Turistikoak, Lazcano jatetxea, Garbaldi, Garaiobe Biltegiak, Muskiz Elektrizitatea, Consignaciones Toro y Betolaza, Atlántica de Graneles y Moliendas, Bunge Ibérica, Exportlan Terminal, Betolaza, Losal Steel Trading, Reconsa Logística, Vulcanizados Retuerto, Kirlan Kirolak eta Sergusa.